

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



*Flaurrak atera ahal izango dira...
merkatura*

Konfinamenduaren egunerokotasuna

Egoera guztiak eta familia guztiak ez dira berdinak. Baina egunotan familia guztiek badute amankomuneko zerbait: duela hilabete eta erdi ez direla kalera ateratzen. Saray Ongay Irurtzongo irakasle bat da, eta bi haur ditu

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Astelehenean Aste Santuko oporrak amaitu ziren, eta Saray Ongay irurtzundarrak 9:00etarako ordenagailuaren aurrean egon behar zuen. Aurretik altxatu zen, gosalduta, eta bilera bat bestearen atzetik izan zuen: Zuzendaritza eta zikloetako beste koordinatzaile batzuekin lehenengoa, ondoren, hirugarren zikloko beste bilera bat eta bukatzeko seigarren mailako lan-kideekin. Ongay Iruñeko Txantrea auzoko Bernart Etxepare ikastetxeko 6. mailako irakaslea da, eta konfinamendua hasi zenetik etxetik lan egiten du. Normalean ez dituzte hainbeste bilera. 12 urteko alabarekin eta aurretik 7 urte beteko dituen semearekin bizi da. Konfinamenduaren hasierako bi asteak "oso gogorak" izan zirela aitortu du Ongayk; "orain ohitzen ari gare-lako edo lasaiago eta errazago pasatzen ditugu egunak".

"Egia da pixka bat erlaxatu naizela. Modu desberdinean bizitzen da egoera, pertsonaren arabera". Hasieran oso gaizki pasa zuela aitortu du Ongayk. Teledia eta, haurren zaintza eta etxerako lanak uztartu behar zituen. "Nire lana aurrera atera behar nuela ikusten ... nuen. Alaba DBHn dago, oso autonomia da eta bera arduratzen da eta berak bakarrik egiten ditu gauza guztiak. Baina semea LH 1. mailan dago eta bere gainean egon beharra dago". Haien irakasleek egunero etxerako lanak



Arratsaldeak aisialdirako tartea dira Saray Ongayren familian. UTZITAKOIA

bidaltzen dizkiela esan du, "matematika, ingelesa..." eta, ondorioz, oso egoera "latzak" bizi izan dituela: "Oso urduri jartzen nintzen haurra mugitzen hasten zelako, letra bat idazten zuen eta gero gelditu egiten zen...". Bere gainean egon behar da, izan ere, irakurtzen eta idazten ikasten ari da eta gauza batzuk egitea kosta egiten zaiola esan du Ongayk. Baina poliki-poliki egoerara moldatzen joan dira, eta "zentratu da eta askoz hobeto gabiltza. Bera zentratu dela eta ni lasaitu naizela izan daiteke". Egoera beste modu batera planteatu zuen: "Orain ez badu egiten gero egingo du pentsatu nuen".

Konfinamendua haurrendako egoera berria eta desberdina da. Martxoaren 14tik ez dira kalera atera. Ongayren haurrek tarteka zerbait komentatzen dute, txikiak batez ere: "Agian orain oporrak izan direla eta oporretara joan behar ginenez ikusi zuten ezin ginela joan eta zerbait komentatu dute". Uda ere haurren kezketako bat da: "Batez ere txikiak galdetzen du ea zer gertatuko den igerilekuekin, bere urtebetetzea ere hor dago...". Plazara noiz aterako diren ere galdetzen du. "Kalera ateratzeko nik haiek baino gogo gehiago dudala uste dut".

Goizez lanak egiten dituzte eta arratsaldean "aisialdirako" tartea da Ongayren etxean. "Ohituta gaude goizez lan egitera". Errutinak jarraitzeko egutegi bat egin zuen konfinamenduaren lehenengo asteburuan, "baina gero ez dut aurrera eraman". Hala ere, errutina batzuk jarraitzen dituzte: altxatu, gosalduta, lanak egin eta arratsaldean "pixka bat" libre. "Hasieran zehaztu nuen eskolako egutegia bezala: 9:00etan euskara, 10:00etan matematika... baina ezinezkoa zen. Ezinezkoa da hori jarraitzea". Hasieran ere altxatzeko ordutegia mantentzea pentsatu zuen, baina "erotu zara, lo egin dezatela" pentsatu zuen gero. "Egia da ez diedala berandu oheratzen uzten. Oheratzearena mantetzen dugu. Baina altxatzearena ez. Helduak lan

karga handiagoa duenez altxatzeko eskatzen dit, baina txikiari uzten diot". Hala ere, iratzargailu naturala izango balu bezala, 9:00ak baino beranduago ez dela altxatzen esan du irurtzundarrak. "Alde horretatik erlaxatu naiz. Altxatzen denean ez badu berehala gosalduta nahi, beranduago gosalduta du. Pixka bat jolasten ibiltzen da, ohea egin eta gero lanak egiten ditu. Ondoren, jolasten, zirikatzen edo dena delakoan ibiltzen da".

Esku lanak, errezeptak, gozogintza... konfinamenduan denborari aurre egiteko hamaika irtenbide bilatu ditu jendeak. Ongayren familiak ere, "egun batean errezeptaren bat egin dugu, galleta batzuk", baina ez da egunero errepikatzen duten zerbait. "Gehienetan libre izaten da". Eguna "ia-ia konturatu gabe" eta "nahiko azkar" pasatzen zaiela aitortu du Ongayk. "Telebista pixka bat ikusten dute, tableta-rekin ibiltzen dira, mahai jokotara, dametara... jolasten ibiltzen dira". Horrela pasatzen dute denbora. "Nik kirola egiten dut. Ez nuen inoiz horrela egingo nuenik pentsatu, baina Interneten topatutako errutina batzuk jartzen ditut eta zerbait egiten dut". Jolasak eta jokoak ez ezik, "liskarrak" ere egoten dira: "Horrelako tartekak izaten ditugu ere". 10 edo 15 minututako "tentsio momentuak" izan ohi dira, baina "ekaitzaren ostean barealdia" datorrela dio Ongayk.

Izan ere, haurrek haien sentimenduak eta mugimenduak nolabait atera behar dituzte eta Ongayren ustez, modu horretan "deskargatzen" du bere semeak barruan duena. "Egoera normalean ni etxera 17:00etan iristen naiz eta 19:30ak arte plazan egoten gara. Haiek ere eskolan, jolasaldian, gorputz heziketa saioetan eta abarretan mugitzen dira. Orain ez dago aukera hori". Energia hori guztia "nire txikiaren" gorputzean pilatzen joaten da, "eta momenturen batean atera behar du". Zirikatzen, bronka botatzen eta haserrea adierazten da bilatzen duen modua,



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Ongayk azaldu duenez. "Ea datorren astelehenetik aurrera uzten diguten ordutxo bat aterazten. Tentsioa deskargatzeko, behintzat".

Espainiako Gobernuak apirilaren 27tik, astelehenetik, haurrak kalera ordu bat atera ahalko direla adierazi zuen. Erabakiak eztabaida handia piztu zuen, izan ere, asteartean, egindako agerraldian haurrak supermerkatuetara, banketxetara eta farmaziatara gurasoak edo helduak laguntzera joan ahalko zutela esan zuten. Azkenean, Espainiako Gobernuak atzera egin zuen eta astelehenetik aurrera haurrek "paseotxo txikiak" emateko aukera izango dutela esan zuen.

Ikasgela birtuala

Ordenagailuaren aurrean pasatzen ditu goizak Ongayk. "Eta eskerrak alaba DBH 1. mailan dagoela eta Chromebook-a eman ziotela. Bestela, ezingo ginatke biak batera lanean ibili". Ikasgela deitutako aplikazio baten bidez egiten dute lan. "Ikasleei lanak prestatzen dizkiegu, haiek bertatik egiten dituzte eta bueltatzen dizkigute guk begiratzeko, zuzentzeko edo dena delakoa". Etxetik ez dituzte klaseak ematen, baina bideodeiak egiteko aplikazio baten bidez ikasleekin kontaktua izaten duela esan du irakasle irurtzundarrak. "Elkarrekin jende nahikotxo hizketan egoteko aukera ematen du. Egia da pixka bat eromena dela, denek batera hitz egiten dutelako eta ez gara gehiegi enteratzen batak edo besteak esaten duenaz". Oporren aurretik "errepaso ariketak" egin dituztela esan du; "hemendik aurrera antzera ariko gara".

"Lehenengo eta bigarren astean ordu gehiago sartu genituen. Askoz gehiago". Izan ere, irakasleendako ere plataforma berria zen eta ez zutela oso ongi kontrolatzen esan du Ongayk. "Nik aspaldi ikastaro batzuk egin nituen, baina ez baduzu erabiltzen, dena ahaztu egiten da". Beraz, martxa hartu arte egun batzuk, "24 ordu baino gehiagokoak" izan zirela esan du. "Orain martxa hartuta errazago eramaten da". Ikasleek plataforma erabiltzen primera ikasi dutela esan du: "Nahiko ongi moldatzen gara".

Teknologia berriak hezkuntzan erabiltzearen eztabaida ez da oraingoa. Baina bat-batean jarri behar izan dira horrekin. "Ikastaroa egin nuen nik nahi nuela-



Saray Ongay irakasle irurtzundarrak etxetik lan egiten du. UTZITAKOA

ko. Informatika gustatzen zait eta ez zait batere kostatzen ordenagailu baten aurrean egotea eta saltseatzea". Ikastaroa "oso interesgarria" iruditu zitzaion, baina ez "orain erabiltzen ari garen moduan erabiltzeko". Tarteke egitea proposatzen du Ongayk: "Kontuan izan behar dugu gaur egungo ikasleak ordenagailuarekin zerikusia duen guztia- ren aurrean askoz motibatuago egoten direla". Hala ere, "lan izugarria" prestatu behar dela esan du irakasleak, eta ikasturtea hasten denean eta egunero- kotasunean sartzen direnean "ez dugu minutu bat bera ere beste gauza batzuetan pentsatzeko. Biharko uzten duzu eta azkenean iritsi da eguna, erabili ez duzunez ahaztu duzuna" Egoera honek alde horretan trebatzeko eta ikastaro horiek berriz hartzeko aukera eman dio.

"Sartuta jarraitzen badugu eta erabiltzera ohitzen bagara, ez egunero eta orduro, baina astean

**"EZ DUT USTE
ESKOLARA ITZULIKO
GARENIK, AGIAN
IRAKASLEAK GAUZAK
IXTERA"**

pare bat ariketa modu honetara egiten baditugu, tresna polita da". Koronabirusak sortutako egoera honek aldaketak ekar ditzake hezkuntzan. "Esandakoa, ikasleei ordenagailua hartu behar dutela esan bezain pronto beste gogo batzuekin egiten dituzte gauzak". Hala ere, gelan duten "gertutasuna" ez dela galdu behar argitu du Ongayk: "Berehala konturatzen zara nor dagoen adi, nor ez, hurbildu zaiteke eta berriz azaldu...". Bestela, ikasle asko "hor geldituko" zirela esan du. Hortaz, klasean tratua "pertsonalizatuagoa" da, eta Internet bidez harreman hori lortzea "ezinezkoa" da.

Internet bidez klaseak emateak beste eztabaida bat sortu du: haur guztiek ez dute ordenagailua edota Internetarako sarbiderik. "Nire gelan zorionez denek dute ordenagailua erabiltzeko aukera eta konexioa". Irurtzundarrak azaldu duenez, ordenagailua izatearena ez da arazo bakarra. "Etxean bi edo hiru pertsona daude ordenagailua behar dutenak eta ordenagailu bakarra dute". DBH 1. mailatik aurrera Chromebook-ak banatzen dizkiete, eta horrek bere etxean gauzak erraztu die. "Alabak berak esan zidan 6. mailan egongo balitz ez zekiela nola moldatuko

ginatekeen". Ordenagailu bakar- rarekin "arazoak" izango zituztela esan du Ongayk.

Martxoaren 13an eskolara joan ziren azken eguna izan zen. "Nik ez nuen uste honek horren luze joko zuenik", eta aste baterako lana prestatu zuten. "Egia da lan nahikotxo jarri genuela, baina aste osoa etxean ezer egin gabe egon behar zuten, pentsatzen genuen denbora izango zutela". Gero etxean egiteko lan kopurua moldatzen joan direla azaldu du Ongayk. Ikasgela aplikazioa plangintza, proposamenak eta ariketak jartzen dituzte, eta ikasleek bertatik egiteko aukera dute. "Ez dugu oso estu eramaten. Nahi izan duenak egin ditu, nahi izan duenak ez...". Familien egoera ere kontutan hartu behar dela esan du irakasleak: "Ikasle batzuk laguntza behar dute etxean, baina guraso guztiek ezin dute lagundu". Hala ere, ikasleak erantzuten ari direla esan du, "gauzak egiten dituzte".

**"HASIERAKO BI
ASTEAK GOGORRAK
IZAN ZIREN; ORAIN
OHITU GARELA DIRUDI,
ONGI GAUDE"**

2019-2020 ikasturtea

"Momentuz ez dugu etorkizunik ikusten. Apirilaren amaieran gaude eta ez dakigu nola bukatu behar dugun ikasturtea. Ez dakigu zer iritsiko den". Ongayren ustez, ez dira eskolara itzuliko: "Behintzat ikasleak ez dira itzuliko". Agian irakasleak azkeneko asteetan gauzak ixtera eta buletinak egitera joango direla aurreikusten du irurtzundarrak. "Grazia egiten dit aprobata orokorrari buruz hitz egiten dutenean eta errepikapenak salbuespena izango direla esaten dutenean. Badirudi errepikatzen uzten ditugula buelta gehiegi eman gabe". Irakasleak azaldu duenez, ikasle batek errepikatu behar duenean "mila buelta ematen" diotelako da, eta familiek aurretik badakite zein izango den erabakia: "Familia lehenengo hiruhilekoan jakinaren gainean jartzen dugu, aurreko ikasturtetik datorren zer bait ez bada behintzat. Bigarren hiruhilekoan, berandu jota".

Osasun krisialdia ikasturtearen azken txapan iritsi da. Hirugarren hiruhilekoa ebaluatzeko moduan oraindik ez direla hasi aipatu du Ongayk. "Suposatzen da departamentuak argibideak bidali behar dizkigula nondik jarraitu behar dugun jakiteko". Irurtzundarrari ez zaio oso "bidezkoa" iruditzen konfinamendu egoera honetan ikasleak ebaluatzeko. "Nire ikasle guztiek aukera dute ordenagailu batekin ibiltzeko eta konektatzeko, baina batek adibidez telefono mugikor bate- tik egiten ditu lanak. Nire kasuan bakarrik ematen da hori, baina badaude ordenagailurik ez duten beste batzuk ere".

Lehenengo Hezkuntzako 6. mailako irakaslea da Ongay, beraz, datorren ikasturtean bere ikasleak DBH 1. mailara pasako dira. Institutura salto egingo dute. "Imajinatzen dut institutu guztietan berdin egongo direla datorren urtean iristen zaizkien 6. mailako ikasleekin". Ikasturte horietako azkenengo ebaluazioan bizi izan duten egoera kontuan izan beharko dutela eta irakasgai batzuetan maila baxuago batetik hasi beharko direla azaldu du. "Haien jakintzetara moldatu beharko dira". Alde onak izango ditu: "DBHra pasatzen direnean Departamentuak Chromebook-ak banatzen dizkie eta lan batzuk bertatik egiten dituzte. Hori ikasita eramango dute".



Arantxa Sueskun psikologoa. UTZITAKOIA

"Lehenengo gauza gure buruari entzutea da"

ARANTXA SUESKUN PSIKOLOGOA

Ezohiko egoera honetan "emozioen errusiar mendia" sentitzea normala dela esan du Arantxa Sueskun psikologoa

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Koronabirusak osasun krisialdia sortu du. Birusa ekiditeko hainbat neurri hartu dituzte, besteak beste, eta bizitza goitik behera aldatu duena, itxialdia izan da. Baina itxialdiak eraginak izan ditzake osasunean ere; buru osasunean, hain zuzen. Konfinamenduak eragin psikologikoak

izan ditzakeela esan du Arantxa Sueskun psikologoa, baina bainera begiratzeko aukera ere ematen duela azaldu du.

Osasunari buruz etengabe hitz egin dute, baina buru gaixotasunak ahaztu dituzte?

Psikologoek elkargo ofizialetik eta beste leku batzuetatik egia da, geroz eta gehiago ari direla

esaten, eragin psikologikoak egon daitezkeela. Geroz eta gehiago dira hori esaten duten ahotsak. Adibidez, orain haurrekin gertatzen ari dena. Denok badakigu denbora asko egon direla itxialdian eta eragin gehiago ez izateko onuragarria izango litzatekeela kalera ateratzea.

Zein eragin sor ditzake?

Gu ikusten ari garen arazoetako bat insomnioa da. Bakardadea ere ikusten ari gara, gehienbat bakarrik bizi den jendearen isolamendua, ez ukitze hori eta jendearekin egon behar hori ikusten dugu. Gaixotasun oinarri bat dutenek, depresioa eta antsietatea, bere gaixotasuna areagotu dezakete. Baina egia esan egoerari buelta eman dioten pertsonak ere badira eta pozik ikusten zaie. Denok harrapatu gaitu shockean eta gure ahulezia ikusi dugu. Hainbat egoera larriren ondorioak aurreikusitako genitzakeen, baina bat-batean ikusten ez dugun bitxito txiki batek gure bizitza hankaz gora jartzea ez. Lehen geneuzkan gauzak alde batera utzi behar izan ditugu. Bestetik, irrealitate sententzia, kutsatzeko beldurra... normala eta ohikoa da horrelako sententziak gertatzea. Baita antsietatea edo inguruko norbait hiltzearen beldurra ere. Oinarri oso patologikoa ez badago, jakin dezala jendeak normala dela egun batean negar egitea, oso triste egotea edo antsietate handiarekin egotea. Beldurra izatea ere normala da. Emozio horiek onartu behar ditugu eta ez dugu lotsarik izan behar egun batean oso triste bagaude. Edo ez. Sare sozialetan ari dira etengabe erakusten hau edo beste hau egin behar dela. Agian zuk ez duzu ezer egin edo ez duzu ezer egiteko gogorik. Konfinamendua pertsonaren arabera modu batera edo beste batera eramaten da, eta egoera desberdinak daude. Batzuek ernatze moduko bat behar dute, geldi daude, shockean, eta geroago aterako dira. Beste batzuk oso aktiboak dira eta gauza asko egiten dituzte. Baina argi izan behar da ez direla opor batzuk eta nahiz eta psikologikoki nekatauta egon bakoitzak bere gauzak egin behar dituela.

Beraz, sentimendu horiek normalak dira.

Emozioen errusiar mendia hori normala da eta onartu behar ditugu beldur horiek. Pasatu egiten dira. Okerrera da ez onartzea eta ni ondo nago esatea; edo kontrako aldera joatea eta panikoa izatea, zeinen gaizki nagoen etengabe esatea, pentsamendu negatiboak izatea, zergatik pasatu den hau errepikatzea... Pixka bat gelditu behar gara eta egunerokotasuna estrukturatu behar dugu. Gainera, kalte egiten badigu albiste gutxiago irakurtzen saiatu behar gara. Beraz, pertsonen arabera

da, baina orokorrean sentimendu horiek daudela onartu behar da eta negar egin behar bada, negar egin behar da. Hori dena askatu behar da. Kontuan izan behar dugu askatasunaren pribazioa dela kode zibilaren zigorrik handiena. Gure senaren kontra doa etxean gelditzea. Beste egoera batean daude aurretik patologia dutenak. Agian egoera honek okerrago egotea eragiten die.

Nola identifikatu emozio horiek eta nola aurre egin?

Lehenengo gauza da gure buruari entzutea. Teknologiak asko lagundu digu besteekin kontaktuan egoteko, baina konfinamenduak lagundu behar digu barrura begiratzen ere. Tartetxo bat hartu behar dugu gure buruarekin egoteko eta nola sentitzen garen ikusteko. Denok dakigu zer sententzia dugun. Oso ondo sentitzen naiz edo ez nago batere ondo. Hori entzun behar dugu. Amorrua sentitzen dugunean bezala. Sentimendu horiek onartu behar dira eta posible badugu norbaitekin hitz egin. Hitz egiteak askatzea lortzen du. Gero ere negar egitea. Egoerak jarraitzen badu, eta gauzak egin arren ez bada pasatzen, teknika on bat idaztea da. Gaizki sentitzen naizenaren inguruan idatzi. Horrela lortzen da sentimendu horiek paperean islatzea, sentimendua bertan gelditzen da, eta gero papera apurtzen da. Egoera luzatzen bada hobe laguntza profesionala eskatzea. Egoerak gainditzen zaituela ikusten baduzu, medikuarengana joaten garen bezala, laguntza profesionala eskatu behar da.

Psikologoarengana joateari lotsa kendu behar zaio, ez?

Bakoitzak ahal duen moduan erantzun behar dio egoerari. Baina nik adibidez ez badut finantzaz ulertzen, aholulari edo abokatu batengana joango naiz. Psikologikoki tabu hori dago. Horrek ez du esan nahi ahulak garenik. Kontrakoa: hobeki egon nahi dugula esan nahi du. Lehenago bere kabuz egiten saiatu behar du, triste egotea edo momenturen batean antsietatea izatea ez delako patologizatu behar; baina gure bizitzan edo lanean eragina badu, eta sufrimendua badakar, ez da lotsarik izan behar. Onartu behar dugu denarekin ezin dugula.

EGOERA DESBERDINAK

Adineko pertsonen etengabe entzuten dituzte beraiekiko mezu negatiboak. Nola eragin dezake?

Min handiarekin eta inpaktu handiarekin. Arrisku handia dutela eta ospitaletan arnasmalu nahikorik ez dutela entzuten ari dira. Osasun mentala kontuan hartuz, oso gaizki pasatzen ari dira. Orain beraien jarri behar dugu atentzioa. Laguntza psikologikoa ere beharko dute, eta entzun behar ditugu. Hori behar dute. Badirudi adineko pertsonak artatzen azkenak izan direla, eta errespetua merezi dute. Oso egoera gogorak bizi izan dituzte eta badirudi ahaztu ditugula.

Jendea bakarrik hiltzen ari da eta dolua egiteko modua ere guztiz aldatu da.


Ikusten ari gara norbaiten ondoan hiltzea lagungarria dela. Inguaruakoak ere ezin dira hor egon eta pentsatzea zure senidea bakarrik hiltzen ari dela oso gogorra da. Gure gizartean heriotzaren inguruan erritual batzuk ditugu. Orain horiek ezin ditugu bete eta ezin dugu pertsona bat galdu dutenen gertu egon. Dolua egiteko modu honek ondorioak izango ditu. Une latzak eta gogorak bizitzen ari dira.

Haurren kasua ere oso berezia izan da. Oso gogorra izan da haiendako?

Ni harritu nintzen hasieratik oso ondo moldatu direlako. Beste guraso batzuekin hitz egin dut eta haurrek egoera oso ongi onartu zutela ere esaten zuten. Baze-kiten ezin zirela atera. Baina egia da denbora pasatu dela eta laugarren edo bosgarren astetik aurrera sintoma batzuk agertzen hasi direla. Ez helduak bezalakoak, baina haserraldi gehiago, irritable handiagoa, aspertzen dira dagoeneko ez dakitelako zer gehiago egin... Eta hori haurrek pila bat zaintzen gaituztela. Ikusten dute gure ardurak ditugula eta asko zaintzen gaituzte. Ez dute esan zezaketen erdia ere esaten. Baina egia da sintoma horiek agertzen ari direla: batzuk lo gaizki egiten dute, errutina aldatu zaie... Beraz, ni ados nago eta kalera atera behar dira. Gainera, ez da berdina hiri batean bizitzea edo herri batean bizitzea, eta alde horretatik pribilegiatu batzuk gara. Haurren osasun mentala malguagoa da eta oso indartsuak dira, baina errespetatu behar ditugu.

Zer ondorio izan dezake haurraren?

Oraindik ez dakigu. Egoeraren arabera izango da: gurasoekiko harremana, familia desestruturatu bat izan, lorategi handi bat duen etxe batean bizi



edo 40 metro kuadroko batean bizi... Begiratu beharko ditugu orain dituzten sintomak eta gero sor daitezkeenak. Beste gai bat normaltasunera itzultzea izango da. Ez da lehen genuena izango. Beraz, atentzioa jarri beharko diegu lo orduei, haserraldiei... eta aldaketak ematen diren begiratu. Egia esan, egoera honek balioko digu haurrak gehiago ezagutzeko eta gure burua haurrekiko nolakoa den ezagutzeko ere. Gure haurrak hobeki ezagutzeko test bat izango da. Familia dinamika batzuk aldatzeko ere balioko du. Barneko hausnarketa egiteko aukera izango dugu.

Lanera joan behar dutenak ere badaude.

Osasun langileak, supermerkatukoak eta beste langile batzuk birusarekin zuzenean lan egiten ari dira eta lan handia egiten dute. Gaiak eta estres horrek ondorio batzuk izango ditu. Jasaten ari diren presioa sekulakoa da.

ETORKIZUNA

Nola aurre egin etorkizunaren ez-jankitasunari?

Pausoz pauso. Egunero gauzak aldatzen dira eta birus honekin horrenbeste zalantza daudenez, hobe da ez aurreratzea. Pixkanaka joatea. Kontziente izan behar gara garai zailak datozela. Gauzak ez dira errazak izango eta horretarako prestatu behar gara. Horrela, etortzen denean eman beharreko urratsak prestatu

ditzakegu. Ez da gure esku dagoen zerbait. Badakigu egoera ez dela berdina izango eta horrek ondorio batzuk izango dituela. Esaterako, masifikazioen aurrean gehiago pentsatuko dugu, kutsatzaren beldurrak jarraituko du... Beraz, nire gomendioa pixka bat gelditzea da. Bestela estutasuna sortuko zaigu.

Hobe planik ez egitea?

Ilusio pixka bat izatea ere normala da. Behintzat Urbarasa joatea. Baina epe motzera egin behar dira. Hau luzerako doa eta gure lehenetsunak aldatu dira. Lehen ea loteria tokatzen zaidan pentsatzen genuen, eta orain mendira bueltatxo bat ematera joan nahi dugu. Orduan, helburu txikiagoekin, baina itxaropen pixka bat izan behar dugu.

Eta dena beltza ikusten dutenendako?

Etorkizuna ez dugu ezagutzen. Nork esango zigun pandemia hau etorriko zela? Inork ez zuen espero horrelako egoera bat. Ezin gara aurreratatu. Daukaguna oraina da.

Orainari begira, nola egin aurre konfinamenduari?

Garrantzitsua da estruktura edo errutina bat jarraitzea. Bestela, etxean gaudenez lasaitzen gara eta nagikeria sortzen da. Orduan, guztiz ezin dela jarraitu jakin arren, pixka bat estrukturatu behar ditugu gauzak: goizean hau egingo dut, arratsaldean beste hau, ondoren... Bakoitzak ahal duen moduan. Gero beste denbo-

ratxo bat niretako hartuko dut, irakurtzeko eta espero ez nituen gauzak egiteko. Ni, esaterako, teknologia berrietarako oso txarra naiz eta denbora nuenez horrekin hasi nintzen. Denbora kostatu zait, baina jarri naiz eta ordu asko pasa ditut horrekin. Estresatuta eta desperatuta egon naiz, baina egin dut. Alferkeria handia ematen zidaten gauza batzuk egiteko neuzkan. Beraz, egiteko gauza horiek idatzi eta egiten joan. Gusturago egingo ditudan gauzak hasieran egingo ditut, eta egin nahi ez ditudanak, baina beharrezkoak direnak ondoren... Buruan gelditzen badira, bestela, hor gelditzen dira. Egoera honek konfort zonaldeak atera gaitu. Bi aukera daude: gaizki nago esan edo egoera erosoena ez izan arren, gure senaren kontra doalako, gauzak egin. Bakoitza bere erritmora, pertsona

"DITUGUN SENTIMENDUEZ HITZ EGITEAK ETA NEGAR EGITEAK ASKATZEN GAITU"

"ETORKIZUNA EZ DUGU EZAGUTZEN, ORAINA DA DAUKAGUNA; EZIN GARA AUERRERATU"

guztiak ez garelako berdinak, baina pixkanaka gauzak egin behar dira. Bestela domino efektuan sartzen gara. Zerbaiti eutsi behar diogu eta kostatu arren, egin. Ondo egoteko esfortzua ere beharrezkoa da. Badago jendea denbora behar duena. Baina denbora hartu ondoren, ekin. Ez gara frustatu behar ere. Elkartasuna ere oso garrantzitsua da. Gu egunero 20:00etan balkoira ateratzen gara eta aurrean bizi den bizilagunak, Itziar Espejokoak, akordeoia ateratzen du eta jotzen du. Sekulako bizitasuna ematen digu. Konektatu egiten gaitu eta Itziarri eskerrak eman nahi dizkiot eskaintzen digun unetxoengatik. **Inoiz ahaztuko ez den egoera bat da. Traumak sor daitezke?**

Ez dakigu. Eragina izango duela argi dago. Ez dakigu zenbaiterainoko eragina izango duen. Unibertitate bat inkestak egiten ari da umeei buruz ikertzeko. Eragina ikertuko dute. Baina oraindik ezin da jakin. Aldaketak ere egongo direla badakigu. Baina ez zer puntutaraino. Baziren pertsona batzuk ahulak zirela eta egoera honekin ezingo zutela pentsatzen zutenak, eta kontrakoak direla ikusi dute. Pertsonen sena batzuetan oso indartsua da eta egoera honek heriotzarekin kontaktuan jarri digu. Zergatik amaitu zen komuneko papera? Beldurragatik. Kutsatzeko eta hiltzeko edo inguruko norbait hiltzeko beldurragatik. Higienea behar zenez, komuneko papera behar zen. Egoera honek ere gurekin eta gure bikotekideekin egoteko denbora gehiago eskaini digu. Esaten dutenez 9 hilabetetan baby boom bat egongo da. Konektatzeko baliogulako. Kontrakoa ere gertatu daiteke. Txinan dibortzio asko egon direla diote.

Teknologi berriek harremanak sustatzeko aukera eman dute. Ezinbestekoa da harremana mantentzea, ez?

Bai. Modu horretan ere harreman bat gertatzen da. Haurrei nabaritzen zaie lagunak ikusten dituztenean, baita guri ere. Harremana garrantzitsua da. Baina gehiegi ere ez da ona. Oreka bilatu behar da. Baina teknologiek mundu berri bat ireki digute. **Hau dena bukatzean, zer izango da egingo duzun lehenengo gauza?** Mendira ibiltzera joan. Ez dut asko eskatzen. Normaltasunean egiten genituen ohiko gauza horiek estimatzen ditugu orain.



Urdiainen aritu diren boluntarioak herenegun, azken bata eman eta gero elkartu ziren. FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA

Osasungintzarako babesak josten

Osasun arloan erabiltzeko 9.000 eta 10.000 bata artean egin dituzte Sakanako 61 jostunek. Hilabete guztian egon dira josten, herenegun arte. Osasun krisialdian laguntzeko egindako lanarekin pozik daude guztiak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Jostunek lan egiteari herenegun utzi zioten. Berako enpresa batean moztu dute bata egiteko materiala, baina bere ohiko lanean hasiko da. Horrek jostunak materialik gabe utzi ditu. "Alde batetik, pena handia lan handia egiten ari ginelako, denak pozik egin dugu lana eta talde bikaina osatu dugu. Baina, aldi berean, poz handia sentitzen dugu hau guztia bukatzen ari delako". Maiteren azalpenak dira horiek. Altsasuar honek 42 urtez Nafarroako Ospitale Gune-ko administrazioan lan egin zuen. Lankide ohi batzuk laguntza eske

hots egin zioten. Maite administrari lanpostura bueltatzeko prest zegoen. Baina sos deia beste arrazoi bategatik zen: "bata premia dugu eta jostun taldeak sortu behar dira".

Iruñean, Refenan, horretan aritu dira. Baina Altsasun taldea sortzeko jubilatutako bi modistengana jo zuen Maitek, Tere eta Maria Luisa. Haien bidez zabaldu zen mezua herrian. Horrela, 39 emakumez osatutako boluntarioen lantaldea osatu zuten. Gehiago ere izan zitezkeen, baina "berrogeialdian zegoen jendearekin kontaktuan egon zire-

nez, ezin izan dute parte hartu. Hala ere, esker ona azaldu diete.

Martxoaren 2tik aritu dira lanean. Egutero, 11:00etan, Gure Etxea eraikinean elkartu dira jostunak. Aurreko egunean etxean jositako hamar bata eman zituzten. Eta, bienar, beste hamar bata egiteko materiala jasotzera ere. Beste boluntario talde bat 17:00etan elkartu da Gure Etxea eraikinean. Haien egitekoa zen Iruñetik jasotako material pila sailkatzea. Izan ere, alde batetik, batoren gorputzak, bestetik lepoak eta, azkenik, besoak jaso dituzte. Hamar bata egiteko beha-

rezko material guztia poltsetan sartzen zuten, hurrengo egunean jostunek jasotzeko.

Boluntario guztiak aurpegian maskarak eta eskutan eskularruak dituztela joan dira materiala jasotzera eta egindako lana ematera. Prebentzio neurriak ezinbestekoak izan dira. "Oso inportantea zen gu ez kutsatzea". Etxean gabe aritzen ziren.

Sakanan egindako bata guztiak jasotzeaz jubilatutako suhiltzaile bat arduratu da. Hark Iruñera eramaten zituen, "han esterilizatu eta egoki jotzen zuten tokietan banatzeko" azaldu digu Maitek. Joan-etorria materiala ekartzeko baliatzen zuen. Altsasun ez zirela iristen ikusten zuten eta Maitek Araceli urdindarra-rengana jo zuen, taldea Urdiainen sortzeko asmoz.

**LIZARRAGAN (5),
ETXARRIN (1),
ITURMENDIN (2),
URDIAINEN (14) ETA
ALTSASUN (39)**

Dendak itxita ere, Sakanakoetan eros daiteke

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuetako hainbat denda telefono bidez saltzen ari dira

SAKANA

Tele-Sakana, etxetik erosi. Mezu hori zabaldu du aste honetan Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak (SDOZE). Ibarreko 30 establezimenduk jakinarazi dutenez, "zure konfiantzako dendetan orain etxetik erosi" dezakegula. Sakanako dendetan erosiz, "tokiko merkataritzaren aldeko apustua egiten da, zirkulu-ekonomia lagunduz eta, ondorioz, guztiok irabaziz". SDOZEko kideek ziurtatu dute beraien dendetan segurtasunez erosteko aukera dagoela.

Elkarteko dendaren batean erosketa egin nahi dutenek telefonoz hots egin behar dute dendara. Dendariarekin hitz egin ondoren moztu eta hark whatsapp bidezko bideo-deia egingen dio. "Horrela, generoa ikusi eta bezeroak nahi duen produktua aukeratu dezake, esaterako, modeloa, kolorea edo neurria ikusiz". Behin produktua aukeratuta ordainketa modua adostu behar da dendariarekin (banku bidezko transferentzia, helbideratzea, Bizum aplikazio bidez edo txarteleko zenbakiak emanez). Erosketa, banaketa enpresa batek etxera eramane du. Behin produktua etxean erosleak ezin badu hura erabili, "erosketa itzultzeko epea luzatuko dugu. Alarma egoera bukatu eta 10 egun gehiago izanen dituzu erosketa itzuli ahal izateko". Erosketa itzuli eta trukean iraungitze datarik ez duen erosketa txartela jasoko du bezeroak.

SDOZE-k sare sozialen bidez telefonoz saltzeko eskaintza egiten ari diren dendak eta haien telefonoen zerrenda zabaldu du. Elkarteko establezimendu guztien berri www.sakanakogida.eus web gunean jasota dago. Elkarteko kideek adierazi dutenez, "guztion artean aurrera egingo dugu". Eta "tokiko-ekonomia laguntzera" deitu dute.

"Hurrengo egunerako jende pila genuen"

ARACELI MENDIA GALARZA JOSTUN BOLUNTARIOA

Batak egiten, nolaz?

Maite lehengusuak, Altsasukoak, hots egin eta esan zidan: "Araceli SOS, SOS. Iruñetik esaten dute bata gehiago egin beharko ditugula. Mesedez, bata egiten lagundu". Herriko whatsappera mezua bidali nuen, jendea apuntatzeko, nahi duenak, laguntzeko, bata

egiten. Jende montoi bat apuntatu zen, bai Urdingoa, bai Lizarragakoa, Etxarrikoa eta Iturmendikoa ere.

Noiz jaso zenuen lehengusuaren telefono deia?
Aste Santuan, ostegunean uste dut. Oporretan geunden. Maitek dena esplikatu zigun eta larunbat goizean ekarri zuten materiala eta topera

hasi ginen. Egutero 11:30ean juntatu gara plazan. Eginda genuena eramaten genuen eta material gehiago hartzen genuen, bakoitzak etxean hamar egiteko. **Materiala berezia da?** Papera bezalakoa da. Beraiek jartzen dute haria eta dena. Erabili eta botatzeko bata dira. **Lan handia eskatu dizue?**

Lehenbiziko egunean, buff... Esaten genuen, hamar ezin da, ezinezkoa! Baina ia hartu genuen martxa eta, hamar, erraz. **Zer moduzko esperientzia izan da?** Giro polita izan dugu. Dena gogoz egin dugu. Nik asko eskertzen diet denei. Hau despeditu eta gero juntatzeko zerbait pentsatuko dugu. Guk, beti afari batekin eta zerbaitekin bukatzen dugu. Pentsatuko dugu aurrerago nola egin.



Etxajuaren ondoren erraldoien konpartsak dantza egiten du, herrian barnako kalejira hasi aurretik. Aurten 1etik 7ra dira festak.

Festen inguruko parte hartze prozesua martxan

Udalak, www.etxarriaranatz.eus web orriaren bidez, galdetegia zabaldu du, festei buruzko ekarpenak egiteko. Galdetegia maiatzaren 10era arte erantzun daiteke. Aurten festekin zer gertatuko den oraindik ez da zehaztu

Hondakinak, hobe pertzetan

Sakanako Mankomunitateak atez ateko bilketa sisteman dauden herrietakoei gogorarazi die "bilketa puntuak garbi mantendu daitezten, hondakinak pertzetan atera behar direla". Izan ere, poltsak jartzean askotan hautsi egiten dira (kargagatik edo animaliegatik) eta hondakinak lurra barratzen dira. Pertza eskatzeko: 900 730 450 edo info@sakana-mank.eus.



SAKANAKO MANKOMUNITATEA

Altsasuko Udalak lau langabe kontratatuko ditu

Interes orokorreko lanak eginen ditu laukoteak sei hilabetez, eta lanaldi osoan. Udalak zehaztu duenez, zerbitzu anitzetan aritzeko bi peoi kontratatuko dituzte (E maila), baita margogintzako eta lorezaintzako ofizial bana (D maila). Deialdian interesatuak maiatzaren 15a baino lehen eman beharko dute izena Altsasuko Enplegu Bulegoan (948 562 754).

Azoken bueltan elikagaiak izanen dira bakarrik

Zazpi asteren ondoren astelehenean Etxarri Aranatz eta asteazkenean Arbizun eta Altsasun azokak eginen dira. Guztietan soilik elikagaiak izanen dira salgai. Udalek Nafarroako Gobernuak emandako protokoloa bete beharko dute: "saltzaileen eta erosleen betebeharrak azaltzen ditu, erantzunkidetasunaren printzipioaren arabera".

Lakuntzako maiatzeko azoka bertan behera

Lakuntzako Udalak maiatzaren 17an ospatzekoa zen azoka bertan behera utzi du, osasun publikoa eta toki publikoetako segurtasuna babesteko. Azokaren bezperan III. Tortilla Txapelketa antolatuta zegoen. Azkenean, larunbatean eginen da. Parte hartu nahi duten lakuntzarrek 672 778 598 telefonora mezua bidali beharko dute larunbateko 14:00ak baino

lehen, eta txapelketaren oinarriak jasoko dituzte. Parte-hartzaileek etxean grabatutako bideotxo bat bidali beharko dute, tortilla nola egin duten erakusten duena. Conservas del Reinoren 50 euroko produktuen zarea zozketatuko dute lehiaketako parte-hartzaileen artean.

Larunbatean, mozzorro eta guzti, itxez itxeko arrakastatsua egin zen. Lakuntzarrek Zea Mays kantatzen eta dantzatzen ageri diren bideoa egin dute. Orain Kantu Koloreren "Nire gortzutza da" kantuarekin gauza bera egitekoak dira.

ETXARRI ARANATZ

COVID-19ak eragindako osasun krisialdiagatik bertan behera gelditu da heldu den astean egitekoa zen maiatzaren jasotzea. Ikusteko dago zer gertatuko den Etxarri Aranazko aurtengo festa egutegiarekin. Hala ere, Etxarri Aranazko Udalak agorrilean izaten diren herriko festen inguruko parte hartze prozesua martxan jarri du, "etxarriarren iritzia eta iradokizunak ezagutzeko eta jasotako emaitzekin, aurrerantzean herritarren nahien arabera festak antolatzeko". Galdetegia maiatzaren 10era arte erantzuteko aukera dago www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Amaia Ijurra Araña kultur teknikariak jakinarazi duenez, jasotako erantzunen berri eman du udalak eta haiekin hausnarketa prozesua abiaraziko dute. Prozesu horretako emaitzak bideratzea izanen da azken pausoa.

Galdetegia

Hamar galderek osatzen dute udalak prestatutako galdetegia. Horretaz aparte, iritzia edo iradokizunak gehitzeko tartea

ere badago. Herrian erroldatuta dagoen eta adinari buruzko galderekin hasten da galdetegia. Seme-alabarik baduen ere galdetzen da. Baita festetan parte hartzen duen ere. Azken lau urteetako festen programak daude eta haietan ospakizunen aurrekontua kontsulta daiteke. Izan ere, horren ondoren heldu dira galdera mamitsuenak: festen iraupenaz, festa egunak moztu behar ote diren, festetako zein jardueratan parte hartzen duen edota festetan zerbait faltan sumatze den.

Festez bi galdeketa egin dira

Aurrena 1980an egin zen festak lastailatik agorrilera aldatuko ziren edo ez jakiteko. 1.036 etxarriarrek eman zuten iritzia. 87 botok babestu zuten festak zeuden bezala uztea, gainontzekoak aldatzearen aldekoak izan ziren. Bigarren galdeketa 2000ko otsailaren 6an izan zen. Udalak hiru aukera eman zituen: festak zeuden moduan uztea; festak beti agorrilaren 1ean hastea eta festak agorrilaren 1etik gertuen dagoen asteburuan hastea. Azken aukerak irabazi zuen.

ETXEAN HAZITAKO BEHI-AZIENDAREN HARAGIA
ETXKO PRODUKTOAK
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
Deitu 948 562 157 | 617 766 536 edo

"Askatasuna baloratzen dugu"

Herbehereak albiste izan ziren Mark Rutte lehen ministroa eta Hoekstra Finantza ministroak hegoaldeko herrialdeei egindako kritikarengatik. Baina nolakoa da egoera haien herrialdean?

Munia El Marhoum Iruretagoiena LAKUNTZA

Otsailaren 27an heldu zen, ofizialki, koronabirusa Herbehereetara, lehenengo kasua egun horretan egiaztatuta. Atzora arte koronabirus kasuak 34.842 ziren, ospitalean ingratuta 10.021 eta hildako konfirmatuak 4.054, RIVMren arabera (Osasun Publiko eta Ingurumen Saila). Agintarien lehenengo erantzuna birusaren eragina gutxieste izan zen. Bai gobernuak, bai probintzietako agintariak eta osasun arduradunek behin eta berriz errepikatu zuten sintomak ziztuzten pertsonak bakarrik pasa ahal zutela birusa. Ez zen inolako neurririk hartu, eta denak beti bezala jarraitu zuten. Erantzun horrek birusaren zabaltzea erraztu zuen. Dena den, egoerak aurrera egin ahal, gobernuaren erantzuna aldatu egin zen.

Hiru pertsona edo gehiagoko taldeak kalean 1,5 metroko distantzia errespetatuz ibilz daitezkeela adierazi zuten, eta, betiere, etxe berberek jendea izanez gero. Kafetegi eta jatetxeek itxita jarraitzen dute martxoaren 16tik, etxeko banaketa zerbitzuertarako izan ezik. Supermerkatu eta merkatuek erosketak seguruago baterako neurriak hartu dituzte. Umeek kalean jolasten jarraitu dezakete. Gutxienez apirilaren 28ra arte egongo dira neurri horiek indarrean.

Horrekin guztiarekin, gobernuak "kontrol masiboa" deitutako plana jarraitu nahi du, jendea etxean geratzeko eskatuz, eta aipatutako neurriak betetzen ez dituen jendea isunak jartzeko aukera dagoela adieraziz. Jendeak plan hori "intelligent lockdown" bezala ezagutzen du, "itxiera zentzuzkoa". Mark Rutte lehen ministroaren hitzetan,

"jende asko kutsatuko du birusak datozen asteetan, hortaz, zenbat eta jende gehiagok immunitatea lortu, orduan eta baxuagoa izanen da nagusi eta pertsona ahulenei birusa kutsatzeko aukera". Haien ustetan, kutsatzea denbora tarte luzeago batean izanen da modu horretan, eta horrek osasun sistemaren ahalmenen barnean geratzea ekarriko du, inolako kolapsorik sortu gabe.

Ekonomia herritarrak baino lehen Rutte telebistan egindako agerraldian, eta baita Osasun Saileko atalean ere, COVID-19ari aurre egiteko 3 plan zeudela adierazi zuten. Lehenengoa, koronabirusaren aurkako inolako neurririk ez hartzea, kutsatzeak azkar igoko lirateke eta osasun sistemak ezinen lioke aurre egin horri, egoera ahulenean dauden pertsonen laguntzeko ahalmenik gabe geratuz. Bigarrena, birusaren euste masiboa, edo itxiera osoa. Haien esanetan, honelako irtenbidea "erakargarria" izan daiteke hasieran, baina "izugarriko eragina izango luke eskolatan, ekonomian, eta abar". Azkena, gobernuak jarraitzea aukeratu duena, lehenago aipaturiko "kontrol masibo" estrategia.

Europar Batasuneko beste herrialde batzuei, gehienbat hegoaldeko herrialdeei, kritika handia egiten ari zaie, bertako kudeaketagatik, ekonomiaren egoera aipatuz beti. Dena den, Herbehereetako parlamentuan,

GEHIENBAT EUROPA HEGOALDEKO HERRIALDEEI KRITIKA HANDIA EGITEN ARI ZAIZKIE

oposizioan ere hainbat kritika izan dira, lehen ministroaren eta gobernuaren hitzei erantzunez. Progresisten (D66 partidua) buruak gobernuaren eta Hoekstra Finantza Ministroaren hitzak kritikatu zituen, Herbehereak gainontzeko Europar Batasuneko herrialdeetatik "bakantzearengatik".

Osasun sistema

Herbehereetako osasun sistema unibertsala eta estandar egokikoa dela diote bai gobernuak, bai hainbat artikuluk. Hala ere, ez da gizarte segurantzarekin, edo zergekin bakarrik ordaintzen. Horren ordez, Herbehereetan bizi eta lan egiten duen edonork nahitaez kontratatatu behar du aseguru pribatu oinarritzko bat, gutxienez. Horretaz aparte, aseguru konplexuago edo osatuago bat nahi izanez gero, bakoitzak erabaki dezake zer kontratatatu. Herbehereetako herritarren %99ak osasun aseguru oinarritzkoa du, behintzat. Gainera, behar izandako arreta eta zerbitzuen konplexutasunaren arabera, aseguruak ez du dena estaltzen, eta gehigarriak ordaindu behar dira.

Mediku laguntza behar izanez gero, lehenengo kontaktua familia medikuarekin egin behar da beti, haiek baitira larrialdietara, espezialistengana, edo ospitalera joateko agintzen dutenak. Ospitaleetan ez dituzte kasu txikiak onartzen, eta etxera bidaltzen dute jendea, edo norbere familia medikuarengana. Bestalde, horrek ospitaleen espezializazio maila altua, eta arrisku handiko gaixotasunak tratatzeko ahalmen handiagoko dakar.

Espezializazio altuak, eta familia medikuarengana kasuak berbideratzeak, ospitaleen jende ahalmena txikitzen dute. Zain-



Fleur Rood. UTZITAKOA



Mahbir Thukral. UTZITAKOA



Luisa Varela. UTZITAKOA



Janita Noorman. UTZITAKOA

keta Intentsiboetako Unitateetako (ZIU) oheak murriztzak dira, Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeekin konparatuz. 100.000 biztanleko 6,4 ZIU ohe daude Herbehereetan. Espainian, aldiz, 9,7 daude, Italian 12,5 eta Alemanian gehien, 29,2

Testak eta zenbakiak

Imane Rachidi Herbehereetan kokatutako kazetariaren arabera, ohiko hildakoen zenbakiak batz bestekoaren gainetik daude. Duela bi eta hiru asteetako zenbakiak kontuan hartuz, esaterako, batz bestekoa baino 2.000 pertsona gehiago hil ziren aste bakoitzean, CBSren (Estatistika Zentro Nazionala) arabera. "Probak eginda, COVID-19arengatik hildakoak 3.315 dira, baina zifra horri, gutxienez, beste 4.000 hildako gehitu behar zaizkio", Rachidiren esanetan.

Ospitaleetara eta medikuarengana doan jendea etxera bidaltzen dute, birusaren sintomak izanda ere, etxean gelditzeko esanez, testak egin gabe. Lehen egunetan Italiatik edo Txinatik etorritako sintomak zituzten jendea egin zizkieten testik, baina gainontzeko jendea ez zaio frogarik egiten. Ez dago test nahikorik, eta sintomak izanda baina koronabirusa izan dutela frogatu gabeko hildakoak ez dira zenbaki ofizialetan agertzen.

Rachidik dionaren arabera, "hau ez da gertatzen norbaitek zenbakiak ezkutatzeko dituelako, inork kontuan hartzen ez dituelako baizik. Ez dago test edo kit nahikorik frogak egiteko, eta osasun arloan lan egiten dutenei lehentasuna ematen zaie". Zenbakiak errealitatekin ahalik eta hurbilen egon daitezkeen, familia mediku holandarrek sistema bat sortu dute, kutsatze eta hildako ez ofizialak kontatu eta zenbaki ofizialei gehitzeko.

Jendearen erantzuna

Gobernutik bidalitako mezuek etxean geratzeko esaten badute ere, nahitaezkoa ez den heinean, jendeak kalera irteten jarraitzen du. Bertakoei galdetuta, gehienetan kalera ateratzeko ahalmena eskertuta agertzen dira, eta beste herrialde batzuek hartutako erabakien aldean bertako egoera hobea dela esanez.

Bizikletan, korrika edo oinez jendea parke eta eremu berdeetara ateratzen da, are gehiago azken asteetan izan den egural-



Utrecheteko kaleetako argazkiak. MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOIENA

di ona eta Aste Santuko oporrak kontuan hartuta. Een Vandag telebista publikoko programak egindako inkesta baten arabera, 6tik 1ek familia edo lagunekin batzeko asmoa zuen Aste Santuan.

Ahal duen jendeak etxetik lan egiten jarraitzen du, eta oinarritzko lanpostua dutenak oraindik lanera doaz. Ikasleen kasuan, martxoaren 16tik aurrera jarduera akademiko guztiak etxetik jarraituko zirela iragarri zuten unibertsitate eta eskolek, eta geroztik, klase eta kontaktu guztiak online egiten ari dira.

Aipatzekoa da zeinen desberdintasun nabariak ikus daitezkeen, orokorrean hitz eginda, bertako jendearen eta kanpotar edo internazionalen arteko ikuspegiak alderatuta.

Bertakoen ikuspegia

Janita Noorman, Herehereetan jaio eta hazitakoa da, eta Utrecht bizi da. Koronabirusaren ondorioz lan egiteari utzi dio eta agenda guztiz zuri duela dio. Bere ikuspegia gobernuarenarekin nahiko lerrotakua dago, agindutako erabakiak ongi hartu ditu. Kalera atera ahal izateak egoerari errazago aurre egiten uzten diela dio, "ia egunero bizikletan ibiltzera ateratzen" direla, eta betiko martxan jarraituta eginen ez lituzkeen gauzak egiteko aukera duela orain. Hobeki egin ahal izan zela ere onartzen du,

hasierako erantzuna geldoa izan zela, baina "gobernuak antolakuntza ona" duela dio: "lider nabari bat dugu, eta espainiar edo italiar gobernuak baino hobeki antolatu gara". Immunitatea lortu eta kutsatze aukerak murriztearen ideia ona dela uste du. Gainera, osasun sistema ona dutela deritzo, eta harro daudela horretaz. Gobernuaren erantzuna egokia dela dio: "askatasuna baloratzen dugu, eta horrek dakarren erantzukizuna har dezakegu".

Fleur Rood, Herbehereetan jaio eta hezitako unibertsitate ikaslea da. Koronabirusak, gehien bat, bere antsietatea edo kezka areagotu dituela dio, orokorrean "etorkizunak zein itxura izango duen ez jakiteak". Bere graduko azken urtea izanik, eta ikasleen gehiengoak bezala, galdera asko ditu: "nola eragingo du nire gradu akaberako lanean? Irailean berriro eskoletara bagoaz, nola errespetatuko dugu 1,5 metroko distantzia? Galdera asko eta erantzunik ez oraingoz". Bestalde, gobernutik hartutako erabakiei dagokienez, ulertzen du

OSPITALEETARA ETA MEDIKUARENGANA DOAN JENDEA ETXERA BIDALTZEN DUTE, ETXEAN GELDITZEKO

zergatik ez dagoen guztizko itxierarik. "Baliteke erabateko itxierak gizartean izango luken eragina ez ulertzea, eta horregatik ongi ikusten ditut orain arte hartutako erabakiak", gehitzen du. "Horrela nolabait bizitza 'normala' egiten jarraitu dezakegu, behintzat".

Kanpotarren ikuspegia

Mahbir Thukral Erresuma Batuan jaio eta hezitakoa da, Indian familia du, baina Herbehereetan bizi da orain. Bera ez dago ados Indian hartutako erabakiekin, erabateko itxierarekin, eta hemen kanpora ateratzeko aukera eskertzen du. Hala ere, egoera bazueta bertako jendeak distantziak errespetatzen ez dituela ere sentitzen du. Berak enpresa txiki bat izanda, egoera honi ahalik eta airosoen aurre egiteko moduak bilatu nahi zituen. Horregatik, aplikazio bat sortu du, zabalik jarraitzen duten janari denda edo antzeko denda txikiak kokatzen laguntzeko. Bere ustez, "egoera hau luzatuko dela argi dagoenez, aukera hau pertsonalki eta profesionalki nola funtzionatzen dugun ikusi eta baloratzeko erabili behar dugu", telebista eta komunikabideetan ikusten dugun negatibitatean bakarrik zentratu gabe.

Luisa Varela Tyschen espainiarra da izatez, baina hau ere Herbehereetan bizi da. Osasun mun-

duari lotuta hazi zen, eta osasun arloan lan egin du azken 9 urteetan. Bere ustez "Herbehereek, Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeekin konparatuta, birsaren aurrean izan duten erantzuna ez da batere ona izan", erreakzio denbora geldoa izan dela dio. Komunikabideen lana, informazio ematea eta egoeraren benetako larritasuna transmititzean ez direla ongi aritu uste du. Bestalde, Rutteren eta Herbehereetako herritarren jokaerak ekonomia gainontzeko guztiaren gaitetik datorrela argi utzi diola gehitzen du, eta horrek "begiak zabaldu" dizkiola. "Espainiar gobernuak gardena da hemengoarekin konparatuz, egunero prentsaurrekoak ematen dira. Bitartean hemen pare bat prentsaurreko egon dira, eta mezua ez da oso argi geratu inorendako".

Nire kasuan, Erasmus programarekin nago Herbehereetan, zehazki Utrecht-en. Ikasleen egoitza eta etxe asko dauden eremuan bizi naiz, eta hemen eguzkia dagoenean kanpora ateratzen gara, bizikletan ikusi daiteke jendea, eremu berdeetan, kana-

BIZIKLETAZ, KORRIKA EGINEZ EDO OINEZ JENDEA PARKE ETA EREMU BERDEETARA ATERATZEN DA

letan, eta abar. Larritasun handirik ez da ageri. Hori bai, janari eskaerak ugari dira, afalorduan 'rider' dezente agertzen dira hemen.

Gainontzeko ikasleekin hitz egin dudanean arabera, norbere herrialdeekin konparatuz, hemen larritasun gutxiago dagoela dirudi. Herrialde aurreratu batean gaudela eta sistema ona dutela transmititzen digute, hartutako erabakiak egokienak direla. Egia esan, kanpora haizea hartu eta buelta bat ematera atera ahal izateak psikologikoki honi aurre egiten laguntzen duela uste dut, eta egoera horren larria ez dela transmititzen du. Baina zenbakiak ez datoz bat beste herrialdeekin izan duten bilakaerarekin, eta nahiko susmagarria egiten zait. Horregatik, esango nuke, lasaitasun sentsazio faltsu bat dela hemen sentitzen dudana.

Neurrien lasaitzea

RTL Nieuws-ek adierazitakoaren arabera, gobernuko ministroak lanean hasi dira orain arte hartutako neurriak lasaitzeko aukeraren aurrean. Abian dauden neurriak apirilaren 28ra arte egonen dira martxan, baina handik aurrera zer gertatuko den oraindik ezezaguna zaigu. Dena den, hartuko diren erabakiak hurrengo egunetan zehar ikusten den eboluzioan oinarrituta egongo direla ere gehitu zuten.

Udaberriko mendi lasterketak gabe

MENDI LASTERKETAK Sakanan aurten ez da udaberriko mendi lasterketak izanen. Lakuntza-Aralar eta Triku Trail mendi lasterketak bertan behera gelditu dira eta Tritoiena abuztuaren 30era atzeratu nahi dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

COVID-19 birusagatik sortutako osasun-krisiak bertan behera utzi ditu hamaika kirol ekitaldi eta txapelketa. Larunbat honetan Sakanako Ibilaldia mendi marxa luze ezaguna zen egitekoa, baina aurtengo edizioa bertan behera utzi eta 2021ean gogotsuago eta indartsuago itzuliko direla adierazi zuten Irurtzango Iratxoko kideek. Eta mendi lasterketekin gauza bera gertatzen ari da, udaberriaren jokatzekoak ziren lasterketak bertan behera geratu edo atzeratu baitira. Sakanan mendi lasterketen egutegi ederra dugu, baina udaberriko probak ezingo dira jokatu eta abuztutik aurrerakoekin zer gertatuko den ezin da ziurtatu.

Altsasuko Kukurereka elkar-teak I. Bargagain Igo eta Jaitsi (12 km) proba antolatu behar zuen lehenengoz maiatzaren 23an, elkartetik Bargagain gurutzera igo eta jaisteko proba herrikoa. Izena ematea ere zabalik zegoen, baina bertan behera geratu da proba. Maiatzaren 31n Tritoiena lasterketa zegoen antolatuta Arbizuko kanpinean (21 km), aldi berean Nafarroako Banakako Mendi Lasterketa izango dena, baina proba abuztuaren 30era atzeratzea eskatu du antolakuntzak. Ekainaren 14rako Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa zuen prest Zabalarke klubak (25 km) eta bi aste beranduago, ekainaren 28an, Triku Trail mendi lasterketa (21 km) zen jokatzeko Etxarri Aranazko kanpinean. Hiru proba eder hauek Euskal Herriko Mendi Lasterketen Rankingerako eta Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarriak ziren eta parte-hartze polita espero zen, baina antolatzailerik ez zirela bertan behera utzi eta hurrengo urtera arte

atzeratu dituzte, eta Tritoiaren kasuan Nafarroako Mendi Federazioaren erantzunaren esperoan daude.

Egoera ikusita "erabaki zuzena" hartu dutela uste dute Lakuntza-Aralar eta Triku Trail mendi lasterketako antolatzailerik

Lakuntzako Zabalarke klubeko Asier Pellejerok azaldu duenez, gertu dago ekaina, eta Lakuntza-Aralar mendi lasterketarekin zer egin, erabakia hartu beharra zegoen. "Denbora aurrera doa, egoerak larri izaten jarraitzen du eta ez dakigunez zer gertatuko den, proba bertan behera uztea erabaki genuen. Nolanahi ere, uste dut ezingo litzatekeela Lakuntza-Aralar ospatu. 200 korrikalari baino gehiago elkarrekin lasterketa batean aritzea, bata bestearen atzetik, izerdia, horniduretako kontaktua eta dena delakoa... nik uste dut ezinezkoa izango litzatekeela" dio. Baimen eta burokrazia kontuak kenduta, oraindik ez ziren bete-bete antolaketarekin hasi, eta horrek erabakia hartzen lagundu ziela aitortu du Pellejerok. "Antolakuntzan bete-betean has-tekoak ginen, oraindik ez genuen ezer erosita, dirulaguntzarik eskatuta, eta horrek proba bertan behera uzteko erabakia erraztu du" gaineratu du.

Etxarri Aranatzen antzeko egoera izan dute Triku Traileko antolatzailerik. Apirilaren 15ean komunikatua kaleratu zuten, COVID-19 birusaren ondotik sortutako ezohiko egoeraren aurrean mendi lasterketa ezingo zela jokatu azaltzeko, eta Asier Beltzak aitortu du pena handiarekin hartu zutela erabakia. "Ez genuen uste horrenbesteko pena emango zigunik, baina egoera ikusita,

uste dugu erabaki zuzena dela. Korrikalarien, boluntarioen, eta proba ikustera hurbiltzen den jende guztiaren segurtasuna ezin badugu bermatu, argi genuen lasterketa bertan behera utzi behar genuela" adierazi du. Otsailean hasten dira prestakuntzetan. "Orduan ez genuen pentsatzen hau guztia etorriko zenik" nabarmendu du Beltzak. Osasun krisi egoera sortu zenean, apirilaren hasieran Nafarroako Mendi Federazioarekin harremanetan jarri ziren, Nafarroako Gobernutik erabaki ofizialen bat ote zegoen galdetzeko. "Guk genekiena aipatu ziguten federaziokoek, azken finean, bermerik ez zegoela, ezinezkoa zela jakitea ekainean lasterketa egiten zutiko ote ziguten. Zalantza asko eta erantzun gutxi, eta horren aurrean zentzuz jokatzeko eta lasterketa bertan behera uztea erabaki genuen"

"200 KORRIKALARI BAINO GEHIAGO ELKARREKIN... EZINEZKOA LITZATEKE" ASIER PELLEJERO

"PENA EMAN DIGU, BAINA USTE DUGU ERABAKI ZUZENA HARTU DUGULA" ASIER BELTZA

"ENTRENATZERA BANAKA ATERATZEN UZTEA, HORREN ESPEROAN GAUDE" ASIER PELLEJERO

dio. Publizitaterako kartel eta eskuorri batzuk izan ezik, oraindik ez zuten aparteko inbertsiorik egin. "Orduan hastekoak ginen lanak ematen. Halako proba baten atzean lan asko dago: baimenak eskatu, hornidurarako erosketak eta inbertsioa egin: anbulantziak, speakerrak, argazkilaria, hesiak, zintak, markatzeko beharrezkoak erosi eta lotu, kamisetak enkargatu, elikagaiak erosi... eta bete-betean saltsa hasi baino lehenago, eta egoera zein den ikusita, gelditu eta proba bertan behera utzi genuen" gaineratu du Beltzak. Triku Trailera izena ematea zabalik zegoen, eta 156 korrikalari zeuden izena emanda. Jakina, antolakuntzak dirua itzuli die.

Bai Lakuntzan eta bai Etxarri Aranatzen, 2021eraino atzeratu dute proba. "Martxoan eta apirilean jokatzekoak ziren hainbat lasterketarako antolakuntza nahiko aurreratua zegoen, inbertsioa egina, eta kasu horretan dirua ez galtzeko lasterketak irailera edo urrira atzeratzea erabaki dute zenbait tokitan. Hori normala da. Baina ez da gure kasua eta hobeto iruditu zaigu lasterketa 2021era atzeratzea. Urte batengatik, ez da ezer pasako" dio Zabalarkeko Asier Pellejerok. Triku Trailekoak iritzi berekoak dira, eta argi zuten ez zutela proba atzeratuko. "Trailean edo urrian lasterketa asko daude, eta argi dugu beste proba batzuei kalte egiteko ez gaudela. Datorren urteari begira jarri gara" nabarmendu du Asier Beltzak. 2021eko ekainaren 27an jokatu da hurrengo Triku Traila.

Aurtengo denboraldian lasterketak jokatu ote den zalantza

Mendi lasterketen denboraldia oso arraroa izango da aurten. Egoera normal batean garai honetan bete-betean legoke denboraldia; uztail erdialdetik abuztuaren bukaerara beharaldia egoten da, eta irailean berriro gora egiten dute lasterketek. Baina aurten irailera begira daude korrikalariak, esperantza horrekin. Hala ere, momentuz ezin ziurtatu proba horiek jokatuko diren ala ez. Zabalarkeko antolatzailerik izateaz gain, korrikalaria da Asier Pellejero, eta ez du batere argi. "Ez dakit aurten lasterketaren bat jokatzerik izango ote den, masifikazioaren kontu horrengatik. Entzun ere egiten





2019ko Triku Trail mendi lasterketaren irteera, Etxarriko kanpinean. SAGRI MAULEON



2019ko Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketako irteera jendetsua. GUAIXE

da uda ondoren koronabirusak gora egingo ote duen, baina gaitasuna ezagutzen ez dugunez eta ideiarik ez dugunez, auskalo. Esaten dute gutxika hasiko gara kalera ateratzen, eta halako lasterketetan 200dik gora korrikalari biltzen dira. Hornidurak, dutxak... nik oso zaila ikusten dut eskatzen diren segurtasun neurriak behar bezala betetzea. Ez dakit aurten lasterketak egiten utziko duten" dio korrikalari lakuntzarrak.

Uste bera du Asier Beltzak. "Momentu honetan Nafarroako Mendi Federazioan ere ez dakite lasterketak egin ahal izango diren ala ez. Federazioan "Segurtasunaren Bermea" delakoa dute orain mahai gainean, talde masiboetan segurtasuna nola mantendu. Egia esan, zaila ikusten dut. Ez bakarrik kirolean, baita festak, kontzertuak... Aurtengo urtea zaila izango da, arraroa. Esaterako, Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuituan 11 lasterketek puntuatzen dute eta dagoeneko lauzpabost erori dira. Maiatzaren 31n Tritoiena zen jokatzekoa Arbizuko Kanpinean, Nafarroako Banakako Txapelketa zena, eta abuztuaren 30era atzeratzea eskatu dute. Aglomerazioaren kontuarengatik proba asko zalantzan daude, oraindik ezin da jakin abuztutik aurrerakoak jokatu diren. Niri iruditzen zait aurten txuri geldituko dela Txapelketa" dio Triku Trail-eko antolakuntzako kideak.

Urte arraroa

Urte arraroa dela, biak daude ados. "Denerako izango da arraro. Ez dakit zein uda klase izango dugun, zer opor, zer festa... ea behintzat aurki kirola egitera bakarrik ateratzeko aukera ematen diguten. Aste asko daramatzagu etxean eta jendeak ateratzeko gogo asko du; beraz, nik uste dut entrenatzera gogoz aterako dela jendea, ahal denean. Hori bai, zein erritmorekin edo zein lehiaketa grinarekin aterako den, hori beste kontu bat da, baina kirola egitera, bederen, gustura" dio Asier Pellejerok. 2021 hobe izatea opa du, eta gauza bera Asier Beltzak.

Trinitateko igoera

Irurtzungo Trinitate festetan Guan taldeak antolatutako Trinitateko Mendi Igoerak bere tokia egin du. Aurten ekainaren 6an litzateke jokatzekoa, askako

plazatik abiatu eta Ergako Trinitateko baselizara igotzen den proba herrikoia (3 km eta 500 m desnibel +). Korrikalari asko animatzen dira proban parte hartzera eta Ergako arranak eta ermita ikuslez betetzen dira, festei primerako hasiera emanez. Aurten zer gertatuko den, oraindik ez daki antolakuntzak. "Ziurrik festak eta lasterketa bertan behera geldituko direla. Irurtzungo Udalarekin gaude harremanetan eta udalak festen inguruan hartzen duen erabakiaren zain gaude. Dena den, aztertzen ari gara ea zerbait alternatiboa egiteko modurik ba ote dugun. Ezingo da berdina izan, Ergako goian jendetza biltzen baikin, baina zer edo zer ezberdina eta sortzailea egiterik dagoen aztertzen ari gara, horrenbeste behar den poztasuna sortzeko" adierazi digu Guan taldeko kidea den Roberto Martil Osasuna Magna Xotako kapitainak.



"EGIA ESAN, ZAILA IKUSTEN DUT AURTEN LASTERKETAREN BAT JOKATU AHAL IZATEA" ASIER BELTZA


"EZINGO DA BERDINA IZAN, BAINA ZERBAIT EGIN NAHIKO GENUKE, EZBERDINA, SORTZAILEA" ROBERTO MARTIL

"TRITOIENA ABUZTUAREN 30ERA ATZERATZEA ESKATU DIOGU FEDERAZIOARI" JESUS MARI REPARAZ

Tritoiena atzeratzea eskatu dute

Arbizuko Eko Kanpinak antolatutako Tritoiena mendi lasterketak saltoa eman zuen aurten. Euskal Herriko Mendi Lasterketen Rankingerako eta Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria izateaz gain, Nafarroako Banakako Mendi Lasterketen Txapelketa da Berriain mendia ardatz duen proba. Maiatzaren 31n zen jokatzekoa, eta hasiera batean irailaren 6ra aldatu zuen antolakuntzak. Baina Nafarroako Mendi Federaziotik data aldatzeko eskaria etorri da. "Egun horretan Belaguako aterpea mustuko du Nafarroako Mendi Federazioak, eta irailaren 6an egutegia txuri mantentzeko eskaria egin du federazioak, Belagua mendizaleon topagune izateko. Horrek, jakina, data aldaketa eskatu du, eta Tritoiena aste bat aurreratu eta abuztuaren 30ean, igandearrekin jokatzeko eskaria egin dugu. Nafarroako Mendi Federazioaren erantzunaren zain gaude" adierazi digu Arbizuko Eko Kanpineko Jesus Mari Reparazek.

Mendi lasterketen egutegiarekin jarraituz, irailaren 20an Uharte Arakil-Berriain Km Bertikala jokatu da, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izanen dena, eta urriaren 4an, Etxarri Aranazko ferietan, Mendira Joan Etorria Lasterketa jokatu da (10 km). Bi proba hauek Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarriak izango dira. Eta Olaztiako San Migel festetan, irailaren 26an, Olaztagutia-Urba mendi lasterketa herrikoia antolatzea aurreikusten du Sutegik. Baina COVID-19 birusak sortutako osasun-krisia nola garatzen den eta agintariak hartzen dituzten erabakien pean daude aipatutako proba hauek guztiak. Udak zer ekarriko duen, horren arabera jakingo dugu lasterketak jokatu diren ala probarik gabe geratuko garen.



Iruñeko Orfeoien bideodei bidezko entseguetako bat. UTZITAKOA

Itxialdian ere ahotsa trebatzen

Osasun krisialdiak bertan behera utzi ditu Iruñeko Orfeoien hainbat emanaldi. Hala ere, entseguen jarraitzen dute teknologia berriek eskaintzen duten aukerekin. Harremanetan jarraitzeko, talde lanean aritzeko eta ahotsak forman izateko aukera ematen die

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A. Iruñeko Orfeoien azken entseguak martxoaren 10ean izan zen. "Aurreratu" zirela esan du Igor Ijurrak Orfeoien zuzendariak; "eta uste dut ondo egin genuela". Etxarriko musikaria martxoaren 4an Madrilera joan zen bertan kontzertu bat eskaini behar zuelako. Martxoaren 15era arte egon behar zen Madril, baina martxoaren 12an itzuli zen. "Giro arraroa" zegoen, "zerbait antzematen zen". Hortaz, alarma-egoera ezarri aurretik Iruñeko Orfeoiko entseguak bertan behera uztea hoberena zela erabaki zuten. Hala ere, Iruñeko Orfeoiko kideek ahotsak entrenatzen jarraitzen dute, eta Zoom aplikazioaren bidez "entseguak" egiten dituzte.

Konfinamenduaren aurretiko egunak Madril pasatu zituen

Ijurrak. Debuta egin behar zuen bertako Orkestra Gaztea zuzentzen, baina entsegu batetik aterata zirenean hurrengo egunetik klaseak bertan behera uzten zizutela jakinarazi zuten. "Pentsatu genuen ezin genuela jarraitu". Egun horiek "tentsio handiarekin" bizi izan zituela esan du etxarriarrak, baita "beldurrarekin" ere: "Eskuak eta aurpegia maiz garbitzen nituen, metroan jendearen artean ahalik eta distantzia gehien gordetzen genuen...". Madrilgo giroa ikusita Mari Paz Arizkuren Iruñeko Orfeoiko zuzendariordearekin hitz egin zuten eta entseguak bertan behera uztea hoberena zela erabaki zuten. Behin alarma-egoera ezarrita kontzertuak bertan behera gelditzen hasi ziren. Martxoaren 14an bertan, Garesen kontzertua eman behar zuten.

Etxetik entseatzeko

"Behin konfinamendua etorrira hausnartzeko egun batzuk hartu genituen. Zer egingo dugu? Zenbat iraungo dira? Honek? Hamabost egun izango dira? Hilabete bat?". Hainbat "agertoki" planteatu zituzten. "Hurrengoratsa aurreratutik behar duzu: A, B eta C planak egin genituen". Aukera desberdinak ikusita, "beharbada hemendik hilabete edo hilabete eta erdira" kontzerturen bat emateko aukera izango dutela pentsatu zuten, eta erreperitorio bat prestatzen hasi ziren: Mahlerren 8. sinfonia. Uztailearen 12an Grandako dantza eta musika jaialdian eskainiko duten erreperitorioa. Edo eskainiko zutena. "Oraindik ez da bertan behera utzi. Guk uste dugu azkenean bertan behera utziko dutela, % 89 batean ziur gaude, baina momentuz ez digute ezer esan". Horregatik, badaezpada, entseatzeko jarraitzen dute.

Esperientzia "berria" eta "desberdina" dela esan du Ijurrak. Zoom aplikazioaren bidez egiten dituzte entseguak. Orfeoian 300 lagunek parte hartzen dute, eta, beraz, denak elkarrekin aritzea ezinezkoa dela azaldu du Ijurrak. "Sokaka aritzen gara. Lau ahots daude: sopranoak, kontra-altoak, tenoreak eta baxuak. Orduan, soka bakoitzeko arduradun bat daukat eta arduradun bakoitzak entseguak eramaten ditu". Hasieran frogak egiten hasi ziren eta denak batera abestera bikoan bi segunduko atzerapena zegoela konturatu ziren. "Ezinezkoa zela ikusi genuen". Beraz, beste formula bat planteatu zuten: "Mikrofonoak mututu egiten ditugu eta arduradunak ez du entzuten bakoitzak abesten duena, baina berak pianoa jotzen du eta abeslariak pianoaren soinua lagunduta entsegu egiten dute". Abeslariak entsegu grabatzeko eta haiei bidali eta nola aritu diren erakusteko aukera dute. Entseguak egiteko modu hau "aukera bat" dela dio etxarriarrak: "Ez da hoberena, baina orain teknologia ematen digun bakarra da".

Gela handi batean elkarrekin entseatzeko ez dauden arren, entsegu "berezi" hauek hiru helburu betetzen dituztela esan du Ijurrak: soziala, talde sentitzea eta forma musikala mantentzea. "Jendea koru batean dago musika gustatzen zaiolako, baina arlo sozial bat ere betetzen du. Etxetik ateratzeko eta jendearekin egoteko aukera bat da ere". Beraz, etxean gelditzeko egun hauetan entsegu hauetan arlo hori betetzen dute, entseatu ez ezik, hitz egiten egoten direlako ere. "Jendeak entseguak egitea eskatzen du. Orfeoia ez da profesionala, eta egoera guztiak ez dira berdinak. Baina orokorrean jendeak entseguak egin nahi ditu". Modu honetan, distantzian bada ere, talde lana sustatzen dute.

Kirolarietxeko etxean kirola egiten duten bezala, ezarria "sasoian" mantendu behar dutela esan du Ijurrak. "Ezartarian gihar eta organo desberdinak dira eta abestea ariketa fisiko bat da". Ahotsa entrenatzeko, entseguak ez ezik,

ENTSEGUEK HIRU HELBURU BETETZEN DITUZTE: SOZIALA, TALDE LANA ETA FORMA MUSIKALA EZ GALTzea

kantu irakasleak ariketak grabatu dituzte abeslarietako kideek etxean egin ahal izateko. "Beraien esku jarri dugu. Ez dakit egiten duten. Zaila da kontrolatzea". Hala ere, orokorrean "jarraipen" handia dutela esan du musikariak.

Kontzertuak on-line

Buruari buelta asko ematen da biltza. "Abeslariak batzuk bideoak ateratu dituzte, eta gu ere horretan gaude. Ez dut gehiago aurreratu". Egunotan sare sozialetan zabaltzen ari diren emanaldien bidoen inguruko "hausnarketa" egin behar dela esan du Ijurrak. Izan ere, kultura "dohainik" ematen ari dira. "Badirudi kultura egitea talde bat elkartu eta zerbaitegitea dela. Baina kontzertu baten atzetik ordu asko daude, atzetik talde profesional bat egoten da... eta dohainik egitea?".

Doakotasuna eta kulturaren egoera egunotan pil-pilean dagoen gai bat da. Apirilaren 21ean eta 22an 1000 bat euskal kulturgileek Greba Digitala egin zuten, eta egun horietan ez zuten sare sozialetan ezer elkarbanatu. Ijurrak esan duenez, "dena dohainik bada gero jendeak ez du baloratuko".

"Pentsatu nahi dut hau bukatzen denean gizartean hausnarketa bat egongo dela, eta ez bakarrik kulturaren". Gizartean hausnarketa bat egongo balitz, "etxean duguna baloratuko genuke". Kultura ez dela "aisialdia" bakarrik azaldu du etxarriarrak: "Nire ametsak bat gelditzea eta noren esku gauden baloratzea da. Badirudi bakarrik baloratzen dela epe laburrean etekina ematen duena". Bide honetan, Ijurrak *La utilidad de lo inutil* liburua gomendatzen ari dela esan du. "Gara honetarako ezinbestekoa da".

Etorbizuna

Iruñeko Orfeoia kontzertu garrantzitsuak eta handiak programatuta zituen. Besteak beste, San Petersburgoko Orkestrarekin Baluartean egin behar zutena. "Valeri Guerguiev munduko zuzendari hoberenatarikoa da, baita San Petersburgoko Orkestra ere. Guretako eta Iruñeko publikoarendako aukera handia da. Bakarra. Aukera horiek galdu egiten dira. Momentu eta esperientzia horiek galdu egiten dira. Kontzertuak bertan behera gelditzeak pena handia ematen du". Izan ere, kontzertuak beste data batean programatzea "oso zaila" dela esan du Ijurrak.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Mundua, bizkitartean lozorroan bor-bor

Inork ez zuen nahi eta inork ere ez zuen espero. Bost aste geroago, etxean tinko, barruko jardunetan temati: ariketa fisiko muturreko (edo ez), meditazio, telefono nahiz bideosolas amaitezin, zoko-mokoen garbi-ikuzi txukun, mahai jolas, telelan, opilgingintza intentsibo edo jaki iraungien lehiaketa, telesail "vintage" edo egin berrien ikusketa, amaraun ezkutuen bila... zernahigintza sortzen eta asmatzen ibili gara eta bagabiltza, "deseskalatzearen" zain.

Hala dabil gizakia alderik alde planetan, ipar eta hego, azken bi hilabeteotan, birus malapartatua astindu nahian, eta etorkizun hurbila eta ertaina irudikatu nahian, baina gerokian ihes egiten digu oraindik, harropuz eta burlati; "a posteriori" kapitain guztiek ere itsasontzia utzi ihes eroan eta portu seguruetan aterbea bilatu dutelarik.

Lur planeta suertatu zaigu, 2020an, eta izurriak ahaztu arren edo literaturaren apaindegira bidaliagatik, pandemiak izan dira eta izanen dira. 1918an beste izurrite erraldoi bat Kansasen

ZERNAHIGINTZA SORTZEN ETA ASMATZEN IBILI GARA ETA BAGABILTZA, "DESESKALATZEAREN" ZAIN

abiatu, munduan bira egin eta milioika hildako eragin zuen; nik eta nire garaiko gehienek, ordea, aiton-amonei ez genien hitzik aditu aldi hartakoaz, hain zegoen ahaztua, eta historiako testu liburuetan toki handirik ere ez zuen hartu.

Bitartean, gizakiak ezustean galdera marduletako bati

erantzuna aurkitu dio, izan ere galdera munduan lekua bilatu eta aurkitzea bada, horra, aste hauetan, bederen, norberak lekua bere etxea du, ez dakit Arestiren aitaren edo Elizanbururena bezalakoa den, baina etxea, zimendua, leihoa eta lau horma finean.

Noiz aterako garen, nola... Agian hartza neguko lozorrotik antzera. Batek daki.

Bihoakie hemendik nire esker ona eta aitortza osasun langileei eta zaharretxeetako langileei.

Eutsi goiari eta kuraia.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK

Aldaketarako garaia

AINGERU MIKEO

Duela hilabete eskas, harriduraz hartu genituen larrialdi-estatuaren adierazpena eta ondorengo erabaki gogorrak. Berritzaileak eta ausartak. Bitartean, txiste ugari. Itxialdiaren hasierako estresa gaindituta, dagoeneko hartua diogu neurria, zenbait kontutan, gehiegizkoa irudituta bazea ere.

Hilabetea aski izan da gure mundua hankaz gora jartzeko. Konturatzeko urtetan eraikitako eredu guztiz hauskorra dela, itxura bat besterik ez dela, hautsitako ispiluan bezalaxe desagertu dela gure bizitzeko era. Isilik datorkigu gaixotasun arriskua eta inguruan dabilkio heriotza. Errespetua, dagoeneko hili gertatu diren guztiei, eta dolumina haien senideei. Madonnak azaldu bezala, Covid-19ri ez zaio axola zer aberatsa, zer famatua, zer jatorra edo zer dena delakoa zaren. Heriotza da berdintzaile handia. Ohartu gara herioari

borroka egiteko zer garrantzitsua den gizarte kohesionatu bat edukitzea, bateratasunez eta elkartasunez aurre egiteko. Zer garrantzitsua den osasun eta, oro har, gizarte ongizate sistema publiko indartsu bat edukitzea. Batzuk lehen lerroan, baina bakoitza berean. Tarte honek balio izan digu geure burua hobeki ezagutzeko eta konturatzeko inguruko pertsonen eta eguneroko gauza txikiak nolako balioa duten. Konturatzeko nolako "garapen" ergela eta ahula izan dugun. Txinatik etorritako birus baten aurka borrokatzeko behar den osasun tresneriarik sinpleena ere Txinatik ekarri behar izan baita, izan maskaratxoak, edo eskularruak, edo azterketa

probak, edo arnasteko gailuak; izan ere, hurbileko ekoizpen sistema deseginik baitugu. Konturatzeko nolako kalte nabarmena egiten dion kontsumo eredu honek lur planetari. Hirietako kutsadura murritztu da. Ibai zikinak garbitu dira. Mendietako animaliak askeago sentitu dira. Hori horrela, ikasgai mingarria behar izan dugu geure buruarekin gogoeta sakona egiteko.

Orain, ematen du poliki-poliki gaitzaldiari buelta ematen hasiak garela eta "normaltasunerako" bideari ekinen zaiola. Baina, zer izan behar da normaltasuna? Aurreko eredu suntsizailera itzultzea ala beste norabide baterako ildoak zehaztu beharko dira?



DUELA 25 URTE...



Kanpamenduaren 25. urteurrena

Koskobilo taldeak urtero kanpaldia egiten zuen agorrilean. Aste Santuan eta asteburuetan ere irteerak antolatzen zituen. Don Jabierrek bere herrian, Otanon, antolatu zuen aurreneko kanpaldia 1970ean. Hari, Baztarrikak hartu zion lekukoa. 10-12 begirale ari ziren lanean kanpaldia eta irteerak antolatzen. Gainera, mende laurdeneko bidea ospatzeko erakusketa bat antolatzeko asmoa zuten. Aste Santuan, apirilaren 21etik 23ra, Ozaetan egon ziren eta ongi pasa zuten.

DATORREN ASTEAN
M-1
DELA ETA ASTEKARIA
OSTEGUNEAN
ARGITARATUKO DUGU

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ZORION AGURRAK



Oihane Doral Zelaia
Zorionak bihotzita! Bi urte iada, ondo pasa zure egunean!
Altsasuko zure aitonen partez Pedro eta Ana Mari.



Nines Notario
Gure ama eta emazteari Zorionak!! Askok maite zaitugu, musu asko eta animo!! Jon, Julen eta Iosu.



Julen Calvo Notario
Zorionak zure familia eta zure lagunak partez!! Aupa Julen!!



Aixa
25ean nire bizitzak zentzu ezberdin bat duela 19 urte betetzen dira. Zorionak zure urtebetetze egunean nire potxola!!



Saioa
Zorionak Saioa!! 4 urte!! Zurekin egoteko irrikitan nago! Muxu handi bat. Irune.



ESKELA



Lurdes Araña Arbizu

Gure amets honetan, gudan xiñistu eta beti ondoan sentittu zaitugulako...

Esker mila Lurdes



Arbizuko Eko Kanpina

ESKELA



Lurdes Araña Arbizu



Gui artien ikustia neigiñizuke zui irrifar xamurraki ingurukuei alaituz ta familikuei elkartuz azken agurra, betiko argiya Askok neizeittu, amiña

Mainttoninek

OROIGARRIA



Maite Berastegi Astiz



I. urteurrena

Ez zaitugu inoiz ahaztuko gure bihotz barranean eramango zaitugu betiko

Arbizu

OROIGARRIA

Fidel Salinas Ferrer

'Frik!'

VII. urteurrena

Beti gure artean egongo zara

Zure familia

Etxarri Aranatz



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

Mezu ezkutua

Orain arte esan izan dugu konputagailuek dena bitarrez adierazten dutela, baina bitarrez zenbakiak nola adierazten diren baino ez dugu ikusi. Gaur bestelako karaktereak aztertuko ditugu elkarrekin jzlasteko aukera emango digun jarduera batekin. Mezu sekretuak trukatzeko prest?

Mezu sekretuak trukatu ahal izateko kode sekretua behar dugu lehenik. Gaur erabiliko duguna ASCII kodea deitzen da eta irudian ikus ditzakezue taulako lehen 128 karaktereak.

Beste 128k osatzen dute taula osoa.

Karaktere bakoitza zenbaki batekin ordezkatu da.

Taulako zutabe bakoitza 3 zutabetan banatuta dago.

Eskuinekoan irudikatu nahi den karakterea dago, ezkerrekoan zenbakia agertzen da hamartarrez eta erdiko zutabean zenbaki hori bera, baina hamaseitarrez.

Hamaseitarra bitarra irudikatzen beste modu bat besterik ez da. Zenbakia bitarrez irudikatu ostean 4 biteko multzotan banatzen da. 4 bitekin 16 zenbaki adieraz daitezke, 0tik 15erako zenbakiak. Beraz A, B, C, D, E eta F letrak erabiltzen dira 10, 11, 12, 13, 14 eta 15 zenbakiak adierazteko.

Ba jada bakarrik geratzen geratzen zaigu ordezkapenak egitea eta mezua bitarrez idaztea edo kontrako lana egitea. Ea asmatzen duzuen bada, ondorengo mezuan jartzen duena:

```
01000101 01110100 01111000
01100101 01100001 01101110
00100000 01100101 01110010
01100101 00100000 01100010
01110101 01110010 01110101
01100001 00100000 01100101
01110010 01100001 01100010
01101001 01101100 01101001
00100001 00001010 01000001
01101110 01101001 01101101
01101111 00100001
```

Emaizta ostiralean <https://guaixe.eus/> komunitatea/EdurneLarraza helbidean.

ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo
0 0 NUL	16 10 DLE	32 20 (space)	48 30 0
1 1 SOH	17 11 DC1	33 21 !	49 31 1
2 2 STX	18 12 DC2	34 22 "	50 32 2
3 3 ETX	19 13 DC3	35 23 #	51 33 3
4 4 EOT	20 14 DC4	36 24 \$	52 34 4
5 5 ENQ	21 15 NAK	37 25 %	53 35 5
6 6 ACK	22 16 SYN	38 26 &	54 36 6
7 7 BEL	23 17 ETB	39 27 '	55 37 7
8 8 BS	24 18 CAN	40 28 (56 38 8
9 9 TAB	25 19 EM	41 29)	57 39 9
10 A LF	26 1A SUB	42 2A *	58 3A :
11 B VT	27 1B ESC	43 2B +	59 3B ;
12 C FF	28 1C FS	44 2C ,	60 3C <
13 D CR	29 1D GS	45 2D -	61 3D =
14 E SO	30 1E RS	46 2E .	62 3E >
15 F SI	31 1F US	47 2F /	63 3F ?


ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo	ASCII Hex Símbolo
64 40 @	80 50 P	96 60 `	112 70 p
65 41 A	81 51 Q	97 61 a	113 71 q
66 42 B	82 52 R	98 62 b	114 72 r
67 43 C	83 53 S	99 63 c	115 73 s
68 44 D	84 54 T	100 64 d	116 74 t
69 45 E	85 55 U	101 65 e	117 75 u
70 46 F	86 56 V	102 66 f	118 76 v
71 47 G	87 57 W	103 67 g	119 77 w
72 48 H	88 58 X	104 68 h	120 78 x
73 49 I	89 59 Y	105 69 i	121 79 y
74 4A J	90 5A Z	106 6A j	122 7A z
75 4B K	91 5B [107 6B k	123 7B {
76 4C L	92 5C \	108 6C l	124 7C
77 4D M	93 5D]	109 6D m	125 7D }
78 4E N	94 5E ^	110 6E n	126 7E ~
79 4F O	95 5F _	111 6F o	127 7F



info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Txema Vesga

...eta aske egin ezazu hegari zeru urdinean...

Etxarriko kuadrilla

ESKELA



Txema Vesga

Zeru beltzean izar dirdiratsu berri bat ageri da

Etxekuek

ESKELA



Andres Lakuntza Urkia

Hotsein ta beti laguntzeko prest
Agurtu eta eskerrak emateko modurik ez dugu izan, baina, beti gogoan izango zaitugu.

Bidai on izan

Lukas, Manttoni, Belen eta Rufi

ESKELA



Fernando Ignacio Arza Sueskun

'Moreno'

"Soilik ahazten dena hiltzen da"

Familiak jasotako doluminak eskertzen ditu

Altsasu

ESKELA



Jose Mari Mercero Lizarraga

I. urteurrena
(2019ko apirilaren 25ean hil zen)

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da

Etxekoak
(Unanu)

JAIOTZAK

- **Selva Benegas Barrenetxea**, martxoaren 26an Olaztin
- **Ahmed El Mazini Sabel**, martxoaren 31n Olaztin
- **Noa Burillo Serna**, apirilaren 5ean Lakuntzan
- **Izan Rodriguez Mugiro**, apirilaren 7an Irurtzunen
- **Ioritz Arbizu Diez de Ulzurrun**, apirilaren 11n Arbizun
- **Dima Larraza Imaz**, apirilaren 12an Altsasun
- **Alesia Ilinca Lungu**, apirilaren 15ean Altsasun

HERIOTZAK

- **Victor Grados Caldito**, apirilaren 1ean Olaztin
- **Teodora Ortiz de Galisteo Saez de Grazi**, apirilaren 2an Olaztin
- **Felisa Olmos Bayon**, apirilaren 3an Olaztin
- **Jesus Lopez de Goikoetxea Lasa**, apirilaren 4an Olaztin
- **Maria Candelas Alonso Garcia**, apirilaren 7an Altsasun
- **Khadija El Kassah El Basri**, apirilaren 9an Arbizun
- **Andres Lobo Guerra**, apirilaren 10ean Altsasun
- **Maria Egiluz Larrea**, apirilaren 11n Altsasun
- **Mari Lourdes Araña Arbizu**, apirilaren 18an Arbizun
- **Andres Lakuntza Urkia**, apirilaren 19an Arbizun

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Datorren astean eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 11:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Amarauna zozketa: Ziordiko gune autogestio-natuko kolektiboak erai-kina erosteko aukera du. Erosketan laguntzeko zozketa antolatu dute: produktu ekologikoen saskia eta 10 lagunenda-ko asteburu pasa Amaraunan. Zozketarako txartelak Bizun aplikazioaren bidez eros daitezke 653 468 741 telefono zenbakian (kontzeptu gisa norberaren mugikor zenbakia jarri txartelaren argazkia bidaltzeko). Txartel bakoitzak 2,5 euro

balio du. Txartel erosleak zenbakiaren berri whatsapp bidez jasoko du. Bizumik ez dutenek eta txartela nahi dutenek 679 553 734 telefonora hots egin dezake. Zozketa maiatzaren 10ean Amaraunaren Instagram eta Facebook profiletan.

Bakaikuko epaitzak: Egur-lotea nahi duenak maiatzaren 15a baino lehen izena eman behar du Udaltxeko postontzian papera utziz, udala@bakaiku.eus helbidera mezua bidaliz edo 948 562 509 – 681 181 308

telefonoetara deituz. Ordainketa lotea banatzeko orduan egin behar da. Lotearen prezioa 20 euro. Bakaikuko Udala.

Uharte Arakilgo festetako zapia: Udalak herrian erroldatuta dauden eta joan den urtean jaio ziren umeei festetan zapia banatuko die. Erroldatuta ez dauden familiek eta festetako ttattarra hartzeko interesa dutenek, garagartzaroaren 5era arte eman dezakete izena info@uhartearakil.com e-posta helbidera idatziz. www.iragarkilaburak.eus



HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

IZARRA

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Amaia Iparragirre Mendia Sakanako Euskaraldiko dinamizatzailea. UTZITAKOIA

"Egunerokoan zein hizkuntzatan ari gara?"

Itxialditik Euskaraldira dinamika martxan jarri zen astelehenean eta martxoaren 3ra arte indarrean izanen da. Hizkuntza ohituretan eragin nahi duen ekimenaren berri eman digu Amaia Iparragirre Mendiak, Sakanako Euskaraldiko dinamizatzaileak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

1 Puntuak etxeetan ikusten hasi gara. Zer da?

Euskaraldiko logotipoan puntutxo pila bat agertzen dira. Jendeari eskatu diogu puntutxo bat, nahi duen koloretakoa, etxeko balkoian edo leihoan jartzeko. Argazkia ateratzea eskatu dugu, herriko bilduma sortzeko.

2 Itxialdiak euskarari eragin dio?

Euskara hitz egiten den etxeetan mantenduko da. Baina besteetan nahikoa eragin ezkorra izan dezake. Norberak bere etxean daukan hizkuntza ohiturei buruzko hausnarketa bat egin beharko du. Baita etxetik ingurukoekin daukanez ere. Eguneroko bideo-dei pila egiten ditugu. Horiek zein hizkuntzatan egiten

ditugu? Kuadrillarekin telefonoz hitz egiterakoan zein hizkuntza ohitura ditugu? Aukera polita da hizkuntza ohituren inguruan norberak gogoeta egiteko, baina baita familiak ere.

3 Etxeko ohiturak alda daitezke?

Aurreko Euskaraldiaren hausnarketetako bat hori izan zen: konfiantza gehien duzun

jende horrekin ohitura hori aldatzea zailena da. Ezezagun batekin euskaraz zerbait hitz egitea ez da hain zaila. Errealistak izan behar dugu eta ohitura horiek egun batetik bestera ezin ditugu aldatu. Gutxienez, goazen momentu batzuetan euskaraz hitz egitera; edo hemendik aurrera whatsapp mezuak euskaraz idaztera. Horrelako pausoak oso garrantzitsuak dira. Eta pausoz pauso lortu daiteke ohitura horiek asko aldatzea.

4 Hasteko, hausnarketa eskatu duzue. Zehazki zer?

Bakoitzak taula batean etxeoak, lagun batzuk, lankidea... Zerrendatxo bat egin eta jartzen joan: honekin nola hitz egiten dut? Euskaraz? Gaztelaniaz? Batzuetan euskaraz? Hausnarketa da: nola alda dezaket ohitura hau? Honekin batzuetan euskaraz eta besteetan gaztelaniaz hitz egiten badut? Goazen hori aldatzera. Bakoitzak bere hausnarketa egin, erabaki zer aldatu nahi duen. Esfortzu handia izanen denez aldaketarako gogoia izan behar da. Hori da, taula eguneroko begiratzera. Errealistak izan behar dugu, taulan lagun guztiak ez dituzu jarriko baina bi, hiru... askotan hitz egiten duzun horien izenak jarri. Hau beroketa bat da, azaroan izanen den Euskaraldia indartsuagoa izateko.

5 Erraztasunik emanen duzue?

Euskaraz jolasteko bideo-pilula bat emanen da. Beste bat on-line poteoa izanen da. Agian etxean edo etxetik egingen dute. Baina zein hizkuntzatan? Guk euskaraz izatea nahi dugu. Hausnarketaren ondorioz, espero dugu on-line egingen den poteo hori

euskaraz egiten saiatuko dela jendea. Euskara asko ez badakizu ere, saiatu behintzat zerbait egiten. Edo entzuten. Belarriprest izan zaitez.

6 Bideoak noiz banatuko dira.

Gaurtik hasita eguneroko proposamen bat. Kanpaina hau maiatzaren 3an bukatuko da.

7 Sare sozialen bidez ari zarete.

Sakanako batzorde guztien artean zabaltzen ditugu bideo-pilula edo informazio horiek. Herri bakoitzean ahalik eta jende gehienarengana iristen saiatzen gara.

8 Nolako izanen da bukaera?

Euskal Herrian bateratua izanen da. Eta horren ondoren aurreikusitakoarekin segituko dugu: ariguneak eta uda eta gero ahobizi eta belarriprestekin.

9 Euskaraldia noiz izanen da?

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Jendeak hasi beharko du pentsatzen zer izanen den: ahobizi edo belarriprest. Hori bai, garrantzia handia emanen diogu belarriprest rolari.

10 Zergatik?

Jende asko eta asko dago belarriprest dena baina aurreko Euskaraldian belarriprest izatera ausartu ez zena. Guk horri erreparatu nahi diogu eta belarriprest rolari bere garrantzia eman, ez da gutxiago izatea.

11 Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko.

Hori da. Orain harreman informal horiek euskaraz sustatu nahi ditugu. Etxetik gehienok lagunekin, familiarekin... ordu asko pasatzen ari garelako.

